

**BIZKAITARRAI-  
BIZKAIERAZ\***

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

318n. zenbakia

2006 bagilla



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

**LAGUNTZAILLE**

# LURRALDEETAKO TXORI MOTAK (I)

Eisenhower gudalburuak, guda egiteko Italia'ra eldu zanean, bere anaiari idatzi eutsen Ameriketara eskolaliburu bat eskatzeko, Italia'ko txorien barriak eukazan liburu zan.

Ornitologia esaten dautsoe egazti-iztiari. Millaka dira munduan ornitologoak eta euren artean batzarrak egiten dabez, Breña'ko ondartzetan. USA'n be egiten dira olako batzarrak: egun guztian ibiltzen dira txoriak ikusten eta gero batzarrean aurkeztu ikusi dabena. Txori kantaririk geien eroan dauzanak 173 eroan dauz, egazti bakoi-txak bere izena latinez dauala.



## URIETAKOAK

Gure balkoietan txio-txioak entzuten dira. Etxe-txoriak dira.

Antxiña Nilo ta Kaukaso-aldean ikusten ziran, nekazariakaz batera. Olako txorien arerioa, kaleetan ugari dabillan usoa da, txori zikiña, baiña biotz leialekoa ta apaiña. Antxiñako etxeen ordez, orma zarrak daukez.

Usoak ugari Benezia'ko San Markos'en: Lenengoak uso albistariak izan ziran eta Kreta'ko gudaren barriak ekarten ebezan, XIII gizaldian.

Paris'en XVIII gizaldian Latude espetxeratuak ekarri ebazan bere leiora, Bastilla alaitzeko. Urietan zozoak ugari ikusten dira.

Maiatzetik aurrera etxeetan elaiak (enarak) daukaguz. Orduko 200 km. ibiltzen dira zomorroak arapatzen.

Zugatz-arteetan be ikusten dira zozoak.

Ipar-Ameriketako uri aundietan, "raskaziolo"etan, zubi aundietan, pakebote-artean, kaietan eurretan, dana dago etxe-txoriz josita, emendik eroanak zozoak dira eta bertako txoriak ondo alkartzen jakez. Zapelaitzak (cernícalo) uxatzen dauz goiera aundiko etxeetan beste txoriak.

Alaitasuna emoten dabe, janaria ta ezkutua ordaintzeko.

## LORATEGIETAKOAK

Erregeak ekarten ebezan lorategietara txoriak, ondo ordainduta.

Goizeko ozkirriagaz lorategian ba'gabiltz, errez entzungo doguz txoriak eguzkiari ondo-etorria emoten: Buru-baltz edo "titipeak" eta, esnea oztuten be ba-dakie. Txori ederra isats-gorria, abeslari gozoa. Txepetxa oso txikia da baiña urtero amabi abi egiten dauz. Amar gramo da bere aztuna.

Baso aundiak misterio aundiak gordeten dauz eta or daukaguz txori abeslari asko eta asko euren kantutik eza-gutzeko.

Txantxa gorria da bat, abeslaririk onena, sastraka-artean agertzen da bere papar gorria. Neguan leio-inguruetan ikusiko dozu, larri.

Okillak, zugatz-enborretan zuloa eginda, barruan egiten dau abia. Gero mozoloak joaten dira ara biziten.

Beste batzuk abar-arteetan egiten dabez abiak.

**Olazar'tar Martin'ek**

## BETIRAKO DAGO JAUNA

Beti batirako, da  
Jainkoaren laguntza  
gizonen bizian,  
Aitak ezin dauz itzi,  
bertan bera, gizonak  
lurraren zorian

Lurra baiño geio da  
giza-seme argia  
bizitza onetan,  
buru ta biotzez  
laguntzak bear ditu  
menderen mendetan

Giza seme leiala  
Aitarengana doa,  
biotzez, eskian,  
Aita gerturik dago,  
errukiz, laguntzeko  
semeei bidian.

Aitak ezin ba'ditu  
semeak gaizki ikusi  
lurraren gainean,  
gure Aita onenak  
ezin gaitu ikusi  
ondamendipean.

Seme guztiak, pozez,  
lurrean ikusirik,  
poztuten da Aita,  
guztien ona nai dau,  
semeak ikusirik  
zorian erara.

Lur biribil ontako  
seme-alaba danak  
zori-nairik dagoz,  
ta zerua begira  
gizadi onetara  
maitasun poz-giroz.

**Paulin**

### 3.- EDESTIA: LEIÑUAK ERRI BAT IZATERA

Erriak asieran leiñuetan bizi izaten dira eta geroago biurtzen dira erri.

Adibide batzuk: Arabiarrak leiñuetan, tribuetan, bizi ziran, Mahoma´ren deiari erantzun eta erri aundi ta indartu biurtu-arte.

Israeldarrak leiñuetan bizi ziran, leiñu bakoitzean epaikariak sortzen zirala, esaterako Sanson edo Jedeon. Orrean 200 urte-inguru igaro-ondoren Samuel´ek emon eutsen erregea eta orduan biurtu ziran erri bakar aundi eta ospetsu, esaterako Salomon´en aldian.

Eta euskaldunak?

Gu beti bizi izan gara leiñuetan eta leiñuak dira gaurko sei errialdeak: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Laburdi eta Zuberoa. Sei dira Be-Nafarroa eta Nafarroa bat lez artu ezker, bi lez artzen ba´dira, zazpi lurralde edo leiñu gara. Ortik “zazpiak bat” antxiñako esaldia.

Iñoz ez gara eldu laterri bat izatera, laterri izen ori lurralde bakoitxari dagokio eta zazpi laterri ziran, laterri bakoitxa bere batzar nagusi eta bere legeakaz.

Biziera orreri “anfiktionia” esaten jako: Guztiak dakie erri bat dirala eta erri lez alkar maite dabe, guztiak dakie Euskalerrria dirana eta beti dagoz gertu alkarrari laguntzeko. Egoera ori sortzeko laguntza aundia izan dabe izkuntza, edo erlejiñoa, edo jakintza, edo lana edo oiturak edo dantzak edo jolasak edo bidezabalak, edo eres-musikea.

Zazpi lurralde orreitan, bakoitxak bere lekuan, egiten izan dira Gernika´koen antzeko batzarrak, beti zugazpean, antxiñakoak zugatzai eutzen maitasuna eta “gurtza” kontuan artuta,

Gure denporako gauzea da agintaritzak bakarra nai izatea, baiña elburu ori ezin dogu lortu eta lortzetik urrin gagoz.

Zer da Euzkadi gaur?

Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba lurraldeak alkartuta, jaurlaritzak bakarragaz, naizta aldundiak indar aundia euki lurralde bakoitzean. Baiña Euskalerrria dan Nafarroa ez dago Euzkadi´ren barruan, eta ez iparraldeko iru lurral-

deak, Laburdi, Be-Nafarroa eta Zuberoa be. Oneik oraindiño leiñuetan edo tribuetan bizi dira.

Ondo legoke gaur “zazpiak bat” izatea, jaurlaritzak bakar bat eukitea?

Bai, zalantzarik gabe, baiña lurralde bakoitxak bere buruaren jabetasuna al dan neurririk aundienean zaintzen dauala. “konfederaziño”-antzerak.

Noiz eukiko ete dogu gure jaurlaritzak zazpi agintaririk osotuta? Jaurlaritzak ori zazpi lurraldeetako lendakariak osotuko leuke eta bakoitxak bere lurraldearen beerago maillako agintariak eratuko leukez.

Nik pozik ikusiko neuke olako jaurlaritzak bat, “zazpiak bat” izena daroan jaurlaritzak.

Eta ba-daukagu olako jaurlaritzak bat sortzeko eskubi-dea, naizta iparraldeko iru lendakari Frantze´ren menpean egon eta Nafarroa´k bere lendakaria euki.

Orretarako beste urrats batzuk be emon bearko geunkez eta itaun onei egokiro erantzun:

- Gure lantegiak zabaltzen diranean, zergaitik ez doaz gure Iparraldera?

- Gure bidezabalak eta trenbideak zergaitik ez dabez alkartzen “zazpiak”?

- Gure euskera batuak zergaitik ez dauz euskalki guztiak indartzen, batzen?

- Zergaitik joaten gara kanpo-erriak ezagutzera, geurea ezagutu barik?

Lana egiteko iparraldekoak Paris´era eta lantegiak sortzeko egialdekoak Txina´ra goazen artean ez dogu “Zazpiak bat” erria sortuko.

Euskera batua egiteko euskalkiak indartzen ez doguzan artean, lurralde bakoitxaren nortasuna zaintzen eta indartzen ez dogun artean ez dogu olako jaurlaritzak bat sortuko.

Gure leiñuak erri bat eta jaurlaritzak bat izatera eltzea nai ba´dogu, itaun orrei erantzun egokia emon dagiegun.

OLAZAR´tar Martin´ek

## AFRIKA: ZUGATZ ONURAGARRIAK

Beste iñon baiño zugatz-mota geiago dago Afrika´n eta millaka kilometroko sabai orlegiak sortzen dabez.

Arabia´ko palmondoak: Munduan bakarra da enbor bat eta abarrak dauzan au. Frutua, ogi-antzekoa.

Ira-landarea: Baso buztietan olako asko dagoz. 30 m.´ko goierea euki leikee.

Dragoia: Eguzkialdeko basamortu edo eremuetan dago eta urte luzeetan bizi da. Batzuk milla urte baiño geiago daukez.

Palmondoak: Eremuetako onune edo oasisetako landarea da. Datilak emoten dauz.

Kakaoa: Txokolata egiteko gaia emoten dau. Mundurako kakaoaren 3/4 sortaldeko Afrika´tik datoz.

Orio-palmondoak: Landara polita kaleak apaintzeko. Onen orioa jaboi fiña egiteko da.

Baobada: Palmondoaren antzekoa da baiña abanikuduna, polita. Zulo bat egin ezker litro-erdi ur emoten dau. Basamortuan asko gaizkatu dauz.

Olazar´tar Martin

# PANDORA'REN KUTXA

## (Erroma'koa)

Zeus (edo Jupiter) jainko nagusiak Prometeo zigortu nai eban, berak ain isillean eukan sua gizakiai laguntzeko emon eutselako.

Bere anaia zan Epesto ola-maixua artu eban laguntzaille eta bien artean, lurra eta ura nastauta, emakume eder bat, iñoz izan ez dan lako emakume bat egin eben.

Gaiñera beste jainko guztiai dei egin eutsen eta bakoitxari doai bategaz neska ori apaintzeko eskatu. Orrelan artu eban neskeak liraintasun ikusgarria, jakituriri zorrotza, argitasun betea eta abar.

Neska orreri Pandora ipiñi eutsoen doai guztiak (pandooron) eukazalako.

Urrengo egun baten Zeus'ek dei egin eutson: Ara! Prometeo'ren emaztea izango zara. Zoaz beragana eta eroan egiozu kutxa au eta esan iñoz be ez idegiteko. Jainkoen izenean, Ermes emon eutson biderako lagun.

Eldu ziran eta Prometeo'ren etxean ate-joka egoan Pandora. Prometeo berak idegi eban atea eta aurrean ain neska ederra ikusi ebanean, arrituta geratuta zan. Gaiñera ikusi eban bere eskuetan kutxatila ederra.

Pandora naz ni –esan eutson neskeak irribarrez–, Zeus nagusiak bialdu nau zugana zure emaztea izateko.

Maitemindu zan Prometeo beingo baten eta pozpuzik egoan emazte barria artzeko. Baiña zurra be bazan eta bere artean iñoan: Zeus nigaz asarre bizian dago eta zergaitik egiten daust onelako emoitza? Badaezpadan, auxe esan eutson Pandora'ri: –Zoaz barriro Zeus'engana. Ez zaitut artzen emaztetzat.

Zeus'ek ez eban ikusi begi onez Pandora barriro Olinpo mendira biurtuta. Beste bide bat artu eban Prometeo zigortzeko.

Pandora ta Ermes biak bialdu ebazan Prometeo'ren anaia zan Epimetro'rengana. Au pizka bat buru-ariña zan. Eta beingoan artu eban Pandora emaztetzat.

Zoraturik bizi ziran biak alkarregaz, baiña kutxa egoan an bien bitartean, ezergaitik be idegi bear ez zan kutxa.

Egunak joan, egunak etorri, biak asi ziran pentsaten, kutxa aretan zer ete egoan. Azkenean kutxa idegi eta barruan zer egoan ikustea erabagi eben.

Bat-batean urten ziran barrutik berebiziko pizti eta txerren moltzoak eta gizarte guztira zabaldu ziran euren izurri ta gaisoakaz.

Estu eta larri, arin itxi eben kutxa, baiña berandu! Barruko txar guztiak urtenda egozan, mundura zalduta be bai, ez zan geratzen barruan itxaropena baiño besteri ezer be.

Azkenean, Zeus'ek Prometeo zigortu eban Kaukasoko aitzetara eta Epimetro ta Pandora itxaropen utsean bizi izan ziran.

**Olazar'tar Martin'ek**

## AFRIKA: LOREAK

Afrika loreetan aberatsa da eta basamortuan be euri-aldietan loreak sortzen dira.

Guk ezin azi-azo doguzan lore asko an berez azten dira, esaterako kalak, jeranioak, gladioloak eta tulipanak.

Klerodendrona: Eun mota baiño geiago dagoz ibaiertzetan eta larreetan.

Barleria: Zugatzaren lorea da eta barartzetan azten da apainketarako.

Strofantus: Landara igolea da eta sasi tropikaletan azten da. Aziakaz pigmeoak euren geziak pozoituten dabez.

Kala: Egoaldeko urertzetan ugari dago. Basurdeen janaria da eta mundu osora zabaldu da.

Ferraria: Lore fiña, baiña egun-erdiko bizia baiño ez dauka.

Mesenbriantemoa: Lore txikia, are-artean bizi da. Gau bateko euri-ondoren agertzen da arri-arte kolorez jazteko.

Iris oria: Tinta baltza egiteko erabilten da azia erre eta auts biurtuta. Kafeantzekoa egiteko be bai.

Napoleona: Mendebaldeko zelaletan asko.

Agapanto beillegia: Lili-antzekoa da eta loreak 20 zm. euki leikez.

## AFRIKA: EJIPTO

Arabiarren erri txapelduna Ejipto da: Nilo ibaiaren frutua.

Nilo ibaiak lur emonkorra ekarten dau eta Ejipto'k lur emonkor ori zabaldu egin bear dau, baiña ur-andapara guztiak alkar osotzen dirala, guztiak dagoz Nilo'ren menpean. Nilo'ren urak iturri bi daukaz: Afrika baltza eta Etiopia.

Orregaitik, Ejipto'k aberatsa izateko auzoakaz ondo konpondu bear dau. Eurak dabez Nilo'ren iturriak.

Assuan'go andapara aundia da orretarako laguntza.

Liñoa barik, arroza ta garia emongo dauz. Ori izango da gose diranen janaria. Lantegiak sortu bear dira, baiña lenago erosleak billatu. Ortik etorri leiteke laterri arabiarren bizibidea: Marrakitz, Aljeria, Turkia, Irak, Iran eta abar. Arduratuko al dira erri oneitako buru diranak, erriaren aurrerapena billatzeko.

**Olazar'tar Martin'ek**

# FILOSOFIAREN EDESTIA

## KANT (1724-1804)

### ZER ZER DAN:

- Racionalismo: Buru-argien bidea.
- Empirismo: Zentzunen bidea.
- Crítica de la razón pura: Buru-argi utsaren azterbidea
- Crítica de la razón práctica: Egiteetarako buru-argiaren azterbidea.
- Crítica del juicio: Baiezteko edo ezezteko esaldien azterbidea.
- Metafísica de las costumbres: Oituren metafísica edo atzean dagozan burubideak.
- Experiencia: Bizi-ikasía.
- Elementos científicos: Zientzi-bideko gaiak.
- Causalidad: Gauza egiñen sorketa edo iturria.
- Existencia: Izatea.
- Espacio: Zabaltasuna.
- Fenómeno: Agiri diran gauzen bidea.
- Noumeno: Ulerbideko gaiak.
- Objeto: Ezagutua.
- Juicio: Baieztea edo ezeztea.
- Juicio a priori: Adimenetik datorren esaldia.
- Juicio a posteriori: Bizi-ikasitik datorren esaldia.
- Juicio sintético: Ezagutuak batzen dauzan esaldia.
- Juicio analítico: Adimenaren ezagupenak aztertzen dauzan esaldia.
- Silogismo: Esaldien arteko errazoiketa.
- Sensibilidad: Sentimena.
- Intuición: Adimenak beragan ikusten dauan burubidea.
- Categoría: Ezagupen eta esaldi alkartuak, amabi dira.
- Función: Zeregiña.
- Sujeto transcendental: Kategorien antzean dagoan norbera. (Ich denke/Pensatzten dot)
- Imperativo categórico: Norberaren aginte sendoa.
- Imperativo hipotético: Baldintza dauan agintea.
- Postulados: Baieztu barik onartzen diran burubideak.

### KANT BENETAKO GIZAUNDIA

Aztertu dogu noraiño eldu diran buru-argiak eta noraiño zentzun-bideko enpiristak eta zelako erakarria izan eben Argituak, baiña orain iru iturri orreik aurrean dauzan gizandi baten bizitzara sartzera goaz, Inmanuel Kant aundia aztertzeke, eta orretara amaitzen dogu filosofi barritu edo modernoak lortu eban dana.

### BIZITZEA

Könisberg´en jaio zan eta beronen amak ondo ezi eban erlejiño eta jokabide arloetan, protestanteen pietismoaren

barruan. Eta gero ikasi eban ekastetxean be estuegi artu eben erlejiñozko egiteen bidea. Ikastetxe Nagusira sartu zanean erlejiñozko egite orreitatik urrindu egin zan. Bere uriko ikastetxe orretan ezagutu eban Newton eta fisika, matematika ta filosofia bideak. Orretan aita il jakon eta sendi batzutara joan bear izaten eban irakasle lez ogia irabazteko.

Bere Könisberg aretan lortu eban dotoretza suari buruz egin eban maixu-lanagaz eta irakastegia be lortu eban, ez bakarrik filosofia irakasteko, biolojoa, jeografia eta pedagogia be bai..Geroago Lojika eta Metafisica irakasten asi zan eta or argitaratu eban Buru-argi utsaren azterbidea edo “Crítica de la razón pura”. Bederatzi urte geroago, 1790, Egiteetarako buru argiaren azterbidea edo “Crítica de la razón práctica”.

Idazti deunaren aurkako eritxiak agertzen ebazala esanez salatu eban, eta geiago erlejiñorik ez aitatzea erabagi eban.

Azkenengo urteak politikaren eta edestiaren filosofia eta oitura arloarena agertzeke izan ziran. 73 urtekoa zala, 1797, itzi eban irakastea eta bere filosofia bear dan lez sailkatzeke bidea asi eban baiña larogei urteak bete ebazanean etorri jakon eriotzea.

...

### ITURRIAK

Kant´en irakatsietan askoren ikutuak agiri dira, naizta bere pentsabidea jatorra izan.

Leibniz eta Wolf´en burubidea sartu ziran bere pentsabidera, naizta gero dogmatikuak zirala esan; or esaterako a priori´ren arauak, bizi-ikasira jo barik.

Berak esan eban Hume´k itxartu ebala dogmatiku orreidin bidetik urteteko. Baiña zentzun-bidera be ez zan oso-osoan sartu Kant, naizta ezagutzeko bide bakarrak zentzunak dirala esan.

Baiña bere bizitzan ikuturik geien daukana Newton dogu: Orreagan alkartzen dauz bizi-ikasía ta matematika.

Rousseau´gandik artu eban Kategoridun agintea´ren antzekoa dan autonomia.

Lutero´tarren erlejiñoak be ikutu eutson bere ezezkortasun aundia ezarteaz.

Lenengo aztertzen dauzan iru arazoak egilleen arazoa (causalidad), izatearen eta zabaltasunaren zertasuna izan ziran.

Egilletasuna eta bere buruaren errazoia emotea ez dira gauza bat, iñor ezin leiteke izan bere buruaren egille edo “causa sui”.

Izatasuna bizi-ikasiak, eksperimentziak, agertzen dau eta burubideko azterketak

Zabaltasuna ez dau beti ondo ulertu Kant'ek, Leibniz, Newton nastetan dauz, baiña argi aundi bat artu eban eta zabaltasuna adimenak beragan daukan burubide bat, intuiziño bat, dala esan eban, ez dago zabaltasunik ezagulearengandik kanpoan.

Kanpoan dagozen gauzak, ezagutuak, objetoak dira eta orretan dago Kant'en Koperniko-Iraultza: Kanpoan dagozan gauza orreik ezagutzen dauzanak sortuak dira, bizi-ikasiz artuak, baiña adimenak be or parte artzen dau, ez dira zentzunen ondoren utsa. Adimenak alkartzen dauz zentzunen ezagutze orreik.

Buru argi utsaren azterbidea deritxon liburuan aztertzen dau sakon arazo ori: Bizi-ikasitik artutako ezagupenak adimenak egin lez errazoiketak? Zelako balioa euki daikee orreik? Ortik aterako dau egiteetarako bidea.. Matematikaren eta fisika'ren dogmatismua dauko aurrean, baiña ez da beti orreinklako zentzunetatik datorren ezagupena

Ezagupen guztiak bizi-ikasi edo eksperientzitik asten dira, lenengo a posteriori, zentzunak artuta, eta gero orrean ondorenak a priori eginda

Esaldiak, orduan, analitikuan edo artertzailleak eta sintetikuak eta gauzak batzekoak izan daitezke. Sintetikuak dira kanpotik gauza barriak dakazena, zentzunen bidekoak, analitikuak ez dakarre ezer barririk, betikoa aztertu baiño. Ba'dago esaldi sintetikorik, bizi ikasitik etorri eta a priori danik? Bai, bizi ikasitik etorri eta gero ziurtasun bat barruan daukena dira, orreik dira matematika eta fisika-arloetan aurrera egiteko bideak. Baiña ez dago olakorik metafisika'ren arloan.

Kant'ek ezagutzeko bide bi onartzen dauz, bata zentzunena eta beste adimenarena, azkenengo onetan a priori.. Batzutan zentzunen da eta beste batzutan zentzunen bidearen barruan ikustea edo intuiziñoa.

Zentzunak artzen dabena fenomeno edo zentzun-bidea da, baiña gauzak dirana bera noumeno da eta ezin daiteke ezagutu. Zentzunen bidean intuiziño garbiak zabaltasuna ta denporea baiño ez dira.

Zentzunak emoten daukuezan barri orreik alkartu egiten doguz adimenaren bidez eta orretarako kategoriak dagoz, gauza askogaz bat egiteko zeregiñak, eta orretarako adimenak amabi era daukaz, esaterako zenbakuntza askorenak ala banakakoak diran agertzeko, zelakotasunarena baietza ala ezetza diran agertzeko, artu-emonak kategorikuak al ipotetikuak diran azaltzeko....

Eta kategori guztien gaiñetik Kant'ek "Ich denke" edo "Nik pentzatzen dot" ipintzen dau: Danari batasuna emoten dautson norbera. Ori da eldutasunera eldu dan "Cogito ergo sum" Deskartes'ena.

Baiña zelan alkartzen dira kategori orreik kanpoan dagozen gauzak? Ori da kapora bidearen laburpena edo "eskema transcendental", kategori bakoitxak berea dauka, esaterako zertasan denporea, egiña izateak aldien joana...

Zentzunen bidea eta adimenaren bidea, fenomeno ta noumeno, obeto aztertu daiguzan.

Zentzunak artzen dabean gauzak, bai or daukaguz, baiña zelan eldu noumeno edo adimenaren bidera? Ken-

ketaren edo abstrakziñoaren antzera egiten dau ezagupen ori adimenak.

Eta noumena ezelan be ezagutu ezin ba'dogu, non dago metafisika? Bizi-ikasitik aurrera doana, buru argia da eta onen bidea silojismoak dira, batzutan gogoa, beste batzutan mundua eta beste batzutan Jainkoa billatzen daben errazoiketabideak.

Gogoaren edo arimearen bidea ez da bizi-ikasiaren bidekoa, arago dago, adimenaren "a priori" orrean artean.

Munduaren azterbidean itaunak egiten dira: Mugabekoa da? Zati banakorak daukoz?, Egilletzarik ba'dago mundu-barruan? Ba-dauka munduak kanpoan dan egilletzarik? Or gure buru argiak dana aidean ikusten dau, ori noumenoaren barruan dago.

Adimenak Jainkoa billatzearen barruan, Jainkoa ideal bat da, baiña ba-dago? Kant'ek ez dauz onartzen beti emon diran zioak Jainkoa ba-dagoala baieztatzeko: Iru emon dira, izatearena edo ontolojikoak, fisikarena eta elburuarena, eta munduarena. Izaterenak ez dau balio, Jainkoa onena da, baiña ba-dago?. Ens a se eta berez bizi dan bat bear dala? Gauzak egillea eukitea zentzunen munduko gauza da baiña ez aragokoa. Bardin elburuen proba orretan be.

Metafisika, zientzi lez eziña da. Or iru gauza legokez, zentzunak agertzen ez dabezenak, arimea, mundua eta Jainkoa, eta orreik adimenak ikusiko leukez, baiña adimenak ez dau ezer ikusten, ez dauko intuiziñorik.

Iru gauza orrek (arimea, mundua ta Jainkoa) onak dira, gauzak toki egokietan ezarteko, baiña zientzi-arloan ezin joan geintekoz zentzunak baiño arago.

Goazen orain buru argi utsaren azterbidetik (Critica de la razón pura)'tik egiteetarakora, praktika'ra. Erantzuna beste iraulketa bat dogu.

Kant'en moral bidea, norberaren agintearena edo inperatibo kategoriko'rena da: Or agertzen da Deskartes'en autonomia. Ez da zentzun-bidekoen egoismua, ez da zentzunak baiño gorago dagon ontasun aundia. Beartuta ez da iñor geratzen atsegiña billatzen dauanean, eginbearra da oiñarria eta ori buru argiaren a priori bat da. Eta "inperatibo kategoriko" lez agertzen da., baldintza barik norberak norberaren buruari ezarten dautson bearkizuna. Iru gauza egin bear dauz: zure eginbidea beti izan daitela baliokoa, inguruko gizakiak eta zeure burua elburu dira ez bide, zure naimena beti izan daitela agintari bakarra.

Ikusi daiguzan orain baieztu barik onartu bear diran egiak., egiteetarako buru-argiak ezarten dauzanak, eta orrelan onartzen diran moralerako bearezkoak diralako. Iru oneik dira: Arimea il- eziña dala, askatasuna daukagula eta Jainkoa ba-dagoala.

Jainkoa ez da ba, Kant'entzat, besterik ideal bat buru argian eta baieztatu barik onartutako gauza bat egiteetarako bidean.

Erlejiñoa garbia da buru-argiaren bidean dagoanean eta inperatibo kategoriko orren barruan dagoana eskatzen dauanean, baiña edestian erlejiñoagaz beste gauza asko nastau dira, sorginkeriak be bai, eta Jainkoak agertua dala diñoan erlejiñoak bide bat eskintzen dau erlejiño garbitra eltzeko. Jainko bat dago, orduan erlejiño bakar bat, buru

*Urrengo orrialdean jarraitzen dau*

# 1.– JAINKOAK EGIÑAK

Gizakia eta bizidunak Jainkoak egiñak garala sinisten dogu, baiña gaur itaun bat egiten dogu, asten dogun idatz-lanen zerrenda oneri asierea emoteko.

Jainkoak egiñak gara, Bibliak diñoan lez, berak eskuz egiñak ala aurrerapenaren edo eboluziñoaren bidez egiñak?

Bizidunen eta gizakien sorrerea adierazteko munduko lurralde guztietan dagoz kondairak eta orreitariko bat da Biblian agertzen dan eta beste lurralde batzutan lenago esanda egoana. Baiña ori, itzez-itx artu bear dogu ala Bibliak esan gura daukuna Jainkoa dala egillea da, beste barik?

Oraintsu esan dabe Ipar-Ameriketean eurak ez dabela onartzen aurrerapena edo eboluziñoa izan leitekenik gure sorkuntza egiteko Jainkoaren bidea. Beste gauza askotan lez emen be Ipar-Ameriketarrak euren eldutasun eskasa agertzen dabe.

...

Eta zer diñoe Eleizearen irakatsiak?

Argi ta garbi esan eban XII Pio Aita Santuak Humani generis bere entziklika'n: "Jakitunak aurrerapenaren bidea ziburra dala baieztatzen ba'dabe, Eleizearen aldetik ez dagoa eragozpenik ori onartzeko". Eta oraintsuago II Jon Paul Aita Santuak argiago ta zeatzago esan dau ori.

Baiña ziur dagoz jakitunak?

Bai. Eta, konparaketa bat egiteko, gaur "eguzkia dagoala erdian eta lurra inguruan biraka" esatea ziburra dan bestean dala ziburra gizakiak beste bizidun batzutatik etorriak garala esatea.

Egi au argi, garbi ta zeatz lenengo agertu ebana Darwin izan zan eta oiñarri bi ipiñi ebazan aurrerapenaren bide ori argitzeko: 1) Izadiak berak egiten dau aukerape-

na eta motarik onenak jarraitzen dabe bizirik eta makalenak galdu egiten dira. 2) Bear-izanak sortzen dauz bizidunetan bear dabezan erakundeak.

Darwin'en aldi inguruan edo lentxuago antzeko burubideak agertu ebezan Lamark'en eta Lineo'k eta bere aldi-inguruan aurkitu ebazan lekaidetxe'ko bere ortuan Mendel'ek ain bearrezkoak ziran jatorriaren legeak.

Oraintsu entzun dogu Turkia'n sendi baten zazpi seme-alaba jaio dirala eta euretatik iru ezin dirala ibilli lau-oinka baiño. Ori ete dan diñue bidean galdu zan bitarteko mota edo espezie bat.

...

Edesti apur bat egiteko esan daigun. Orain 10 milloi urte gorila antzeko bat egoan baiña ez egoan gizonik oraindiño.

Orain 100 milloi urte gorila orren aurretikoa arratoi bat edo katamixer bat zan.

Orain 400 milloi urte arraiñak baiño besterik ez egoan munduan eta geroago, arraiñak zakatzak galgu eta bikiak sortu ebazanean, txoriak sortu ziran.

Munduan izan diran pizti-mota edo espezie guztietan %99,90 galdu egin dira eta gaur 10 milloi pizti-mota daukaguz munduan.

Len-biziduna munduan agertu zala 3.500 milloi urte dira. Gaur itxas-barrean, ikusi-eziña dan arraintxu bat geratu eta beste bizidun guztiak galduko ba'lira, piztitxu orretatik beste 3.500 milloi urtetan gaur daukagun beste bizidun agertuko litzakez, gizakia be bai, baiña, jakiña. ez gaurkoak lako bizidun mota bardiñak!

**Olazar'tar Martin'ek**

*Aurreko orrialdetik dator*

argiaren bideko erlejiñoa, eta Kristo egibide argien irakaslea da. Gizonagan txarrerako jokerea dago eta Salbatzaille baten bear-izana agiri da.

Eskubideen eta edestiaren arloa sarritan aztertzen dau Kant'ek. Ez dira gauza bat eskubideak eta oiturak edo morala, bata gizonaren barruan dago, bestea kanpoan. Eskubideak laterrietan dagoz, erritarrengandik artuta. Emen argi agiri da Rousseau'ren bidea.

Edestiaren barruan Jainkoaren ardurea agertzen dau Kant'ek, beintzat aurrerapena dagoala argi agertzen dau. Eta azken elburua gizakia da, baiña bizidun-mota lez artuta.

...

Amaitzeko, ez da gauza erreza Kant'en sistema guztia aztertzea, berak be bere irakatsiak alkartu nai izan ebazan bizitzaren azkenean, "Opus postumum"en agerten dan

lez, baiña ez eban amaitu. Or agertzen asi zana ez dago bere irakatsien aurka, baiña ba-dagoz aurkakeri batzuk, esaterako Kant'ek Jainkoa goian jarri arren, batzutan munduaren barruan jarten dauala dirudi, egiteetarako edo moralerako legeakaz bat eginda.

Arazorik sakonenak aztertu ebazan gizakien bizitzan. Ez eban emon azken -erantzunik eta eskubidea daukagu bere gautz batzuk ez onartzeko, baiña bere irakatsiak ez dira aitzu bearko urrengo folosofo guztiak aztertu bear diranean.

Asko aurreratu da zentzun-bidea ta buru argiarena alkartzeko eta elburu batera eltzeko, baiña oraindiño asko falta da Aristoteles oiñarri dala, Akinotarrak lortu eban erakundea lortzeko.

**Olazar'tar Martin'ek**

## AITA IBERO (II)

“Saski-Naski”ren azken banakoan, Aita Ibero´ri lenengoe-tako abertzaletasunaren auspoketari, nere idaz-luma kaxka-rez, ondo merezitako aipu goresgarria idatzi nion.

Gure irakurleak, zorionez, kopuruz nai ainbat ugari ez ba´dira ere, izen-zerrenda jator eta polita eratzten digute. Eta gure aldizkari ontan idazten danaren eragiñik nabari dute. Arpi-dedunen abizen-lerrokada ontako batek, Latxaga ezizen edere-pean bere buru argia estaltzen duan idazle adituak, nerea iraku-rri ondoren, txeratsu eta benetan eskertzen diodan zertzelada txit jakingarrizko batekin borobildu-erazi dizkit nere idaz-lan-txo artan azaldutako lekaide buruñurdun aren bizitasunak.

### TERUEL´GO HIJAR´ERA ERROMES?

Nere lan-lerroan, amai-amaieran jarritako ua, (Teruel´era joanik erromes-txango aberkoiz egin bear genioken omenal-diaz, alegia) praille abertzale aren gorpu-kondarrak Euzka-di´ra ekartzearekin, ez erabat baiñan bai aski osatua legokela zor diogun omena, esaten zidan Latxaga´k urrutizkiñez. Ez da ordea, dana bukatu, eta onatx jarraian Latxaga ikerlari saia-tuak (bere txangoetan Naparroa´ko euskal erro ta guna zurrupatzen eta azaleratzen alegintzen zaiguna) dakarkigun albiste berria, bene-benetan garrantzizkoa, itunxea izan arren, bere zentzu edakorrean abertzaleentzat pozgarri, euskaldunen artean lekaide ezaguneko aren abertzale-lan etekintsuak izan zuan eragipen zolia nabarmen jartzen bait-digu.

Aita Ibero zanaren gorpu-kondarrak Teruel´go Hижar´en obi-ratuak ez omen daude kristaukiro eortzi zuten lekunean. Aren etsai endekatu ta zitalak Euskalerrri asmatu-bearriaren arerio ziraunkumeak narrioz kutsatu, profanatu, bait zuten eta bertan paketsu zetzaten ezur-ondakiñak barreiatu eta sakabanatu. Len esaten genduana, obitik berpiztua zutituko ote zan beldur?

### 1957´GARRENGO EUSKO AMI´REN ARGITALDIA

Aipatzen nuan Aita Ibero´ren idaz-lan aberkoi ua, ez maixu zurrian ta ezago jakitun-sundaz, baiñan bai zustratsu ta apalkiro itz-lauz oreturik, 1906´garrenean izan zuan bere lenengo irrarraldia. Gaurko begi zorrotzentzat xur eta xume, baiñan garai artan abertzaletasunaren zuztapen eta auspo zuz-

pergarri, izan ditu liburuxka aundi onek beste argitaldi batzuk. Nolanai ere, nere iruzkin oni dagokiona zudun aundikoen eta idaztera beartu nauana, 1957´koan izan da, Argentina´n azal-dua eta nik ezasgutzen ez nuana. Aipagarri zaigun argitalpen onek itzaurre argigarri bat dakarkigu, Aita Ibero´ren prailleki-de ta garaikide izan zan batena ta ixilik gorde ezin dogun batena: Aita Orikin (abizen-izenez Irujo´tar Ander) deritza-nena. Kaputxino au bera ere, Aita Ibero´ren antzera, urrutitsu erbesteratua izan zan. Nora-ta Argentina´ra, “oben” berdiña-gaitik. Ara furrundaka ta gorrotoz igorri baiño iraizi zutenak, gure euskal larrain idoituan alatean zebillen abertzale-azia pulunpa ta erabat itto nairik egin zuten.

### LIBURUTXO ONDORIOTSU TA BI LEKAIDE EZILKOR

Zerk eragiñik eta zeintzuk izan ote ziran Aita Ibero´ren ondakiñekin alako basakeria burutu zutenak? Gure galderak ba-dakigu ez duala entzun-erantzunaren oiartzunik izango. Baiñan Hижar´en ildako arek bizitzaldian gure euskal lur-rean, gure baitan egin zigun goldaketa ta ereintzak eman digu dago-neko bere igali-emaizta eta gerora begira ezin neurtu dezake-gu garbiro jokatzu ekar dezaken aberaskia.

### ORI TA GERO ARTE

Napar kementsu ta ausarta aren eragiñak, Euskadi´ri bizi bearria, leber ta oldartsua txerta nairik, sakonki dirau; ta egu-nean-eguneango gure Erriaren abertzale-jardunean ikus daite-kean gauza da.

Zerrenda berean eta beste zenbait abertzale aundiren alboan, Aita Ibero´ren abizen-izenak tximistazko letraz irrari-rik daude, euskal belaunaldi berrien jarraibiderako, alkar-min eta aske-min dagioan aberri laztan onen pizkunde-liburu eskergan.

Ez bizirik eta ez illik lur-zoruan aurkitu etzuan atsedene-pake zorionsua. Jainkoak deiola zeruan.

Gotzon Egaña

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk´ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be ida-tzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**



## AILLANDE OIHENART (1592-1667)

Zubero'tarra dogu idazle au, Maule'n jaioa. Zubero'ko euskerea gatx egiten jaku, Euskalerriaren beste ertzean dagoalako eta, gaiñera, frantzetarren "ü" erabilten dabelako.

Bordele'n ikasi ebazan legeak eta tituloa lortu, eta gero ardura aundiak artu ebazan Zuberoa'n.

1627'an ezkondu zan eta Juana Erdoi bere emazteari zuzenduak dira bere maitemiñezko olerkiak.

Donapalau'ra joan zan bizi izaten ezkondu ta gero, eta erri onetan be ardura aundiak artu ebazan, esaterako Naparroa'ko korteetan eta erriko ziñegotzi lez. Beti erritarren alde jokatu eban.

Liburu eder bi idatzi ebazan. Bata ain aitatu dan "Notitiae utriusque Baskoniae" eta "Les proverbes basques" bestea.

Lenengo liburua latinez idatzi eban eta Euskalerriaren edesti edo historia osoa da, iru zatitan: a) Antxiñako euskaldunak. b) Naparroa'ko erreñua. d) Akitania'ko euskaldunak. Gauza jakingarri asko geratu dira galdu barik berari eskerak.

Bigarren liburuak izena frantzeraz dauka baiña zati aundi bi daukaz euskeraz a) Atsotitzak edo erreñuak: 892 dira eta b) idazlearen gaztaroko bizitza neurtitzetan. Oneik 21 olerki dira

Zelako olerkaria dan? Orixe'k asko goratzen dau eta Etxepare baiño ohea dala diño, landuagoa. Geienetan bertso laburrak idazten dauz eta euskera garbian. Joscerea be ona dauka, orduan gitxiak lakoa.

Ona emen irakurgai bat, Zubero'ko euskerara urreratuko zaituana:

Gauik, egunik, (5)  
Eztiñat hunik, (5)  
Hireki ezpaniz Argia: (8)  
Hireki ezpaniz, (5)  
Itsu utsa niz, (5)  
Zeren baithiz en'argia. (8)

Hirekil'aldiz  
Bederat aldiz  
Bazter lekutan baturik  
Nonbai banago,  
Nun botzenago,  
Ezi Errege gertaturik.

Lagun artean  
Hel nedinean,  
Elhaketan erhogoan, ez nun dostatzen,  
Ez nun mintzatzen,  
Hi beti, beti, aut gogoan.

Nik dudan lana,  
Ezin errana,  
Zer koeinta dudan higati;  
En'ixil eta  
Maiz pentsaketa  
Egonak, ziotsan nigati.

Kadran orratzak  
Burdin-aitz latzak  
hunki-eta buztan mehea  
xuxen, han hara,  
egueditara  
duadukan punta xehea;

ni hala hala,  
tiraz bezela,  
hik joz geroz bihotzean,  
hiri gorpitzez,  
beti, ed'orhitzez  
narrain, bait'are lotzean.

Bana herabe,  
Stakuru gabe,  
Dinat, Argia, jitera  
Hir'etx'irira  
Leku agerira,  
Jenten mintz'erazitera.

Beraz higanik  
egin, jadanik,  
noiz nadikina dakidan  
jin, eta nura  
gorde-lekura  
eta hi ha bat akidan.

Olazar'tar Martin'ek

### AFRIKA: TXORI KOLORETSUAK

Afrika'n zingiren ertzetan flamenkoak agertzen dira ugari: egazti ederrak, guztiak batera doazenean zerua illunduten dabe naizta eurak gorriak izan. Piku luze ta zorrotza biurtu be egiten dabe janariak aterateko.

Kolioa'ri "txori saga" esaten dautsoe, aranak jateko sagu antzera zugatzera igoten dalako. Began ibiltzen da eta egaz oso gitxi egiten dau. Epetxaren neurrikoa da, baiña buztan luzea dauka.

Erakuslea: Ezti-zalea da. Erlontziak ezin dauz idegi. Erlontzia aurkitzen dauanean, gizon bat etorri arte itxaroten dau eta gizona datorrenean txioka iragarten dautso ezti dagoala eta bidea erakutsi. Gizonak ezti izten dautso, esker onez.

Marabua: Amianoaren antzekoa da, baiña zikin-zalea. Motza edo itxusia be ba-da. Jatekoa papuan gordeten dau gero auznartzeko.

Serpentarioa: Anak eta buztana luzeak daukaz. Zuge zalea da eta baserritarren laguna.

Kongo'ko idi-oilarra: Orain aurkitua. Erle jale gorria.

### AFRIKA: ZUGE IKARAGARRIAK

Afrika'ko basoetan, bedartzetan eta eremuko are-artean eundak zuge-mota dagoz, geienak apalak eta baserritarren lagunak.

Zepedoia: Ez aundia baiña bai arriskugarria. Pozoia begietara bota eta itsutu egiten dau. Iru m.'ra be bai. Amabi aldiz bota leike. Sahara'n dago.

Gaon'go zuge gorria: Lodia da eta arratoiak jaten dauz. Narrua baltz, beillegi, ubel eta gaztain-kolorekoa dauka. Baso-barruan ez da ikusten. Ez dautso gizakiari ozkarik egiten.

Seba'ko pitoia: Basoan bizi da eta txoriak eta arratoiak jaten dauz. 7 m. luze. Gazela osoa iruntzi leike. Ez dautso gizonari erasoten. Iñoz bai.

Zuge gorri adarduna: Adartxu bi daukaz. Ez da aundia, baiña bere pozoia ilgarria da. Kolore ikusgarriak dauz: Urdiña, iru-zoko orlegiak, baltza, gorria...

Buzefaloo: Aginkada arriskutsua onena. Baiña biguna da. Muzkerrak eta kamaleoiak jaten dauz.

Manba: Au da Afrika'ko zugerik bildurgarriena, luzea ta meea, buru-txikia. Erasoteko zutundu egiten da erdia. Gizakiari eraso egiten dautso bidera urtenda. Uzika egin ezker, minutu gitxi barru eriotzea dator.

Olazar'tar Martin'ek

---



---

# SALMOAK

---



---

## 95N. SALMOA: AMABIRJIÑA, SAN PEDRO ETA SAN JUAN

1

Pedro santuak igesi zuan  
Erodesen mendetikan,  
Asian bizi zan ta eskatu:  
“Etorri Pedro ortikan”.  
San Paulo eta Santu Bernabe  
zeuden dudan jarririkan,  
baita Maria, Jesusen Ama,  
ekarri Efesotikan.

2

Pedrok augatik karta bat egin  
zion Ama Birjiñari:  
“Zure mendeko serbitzariak  
dio Jaunaren Amari:  
Andrea emen dudak dauzkate  
jarraitzeko legeari.  
Jakin nai due gure bitartez  
entzuna Jaun Maixuari.

3

Joanek karta betzean esan  
“Nola nai dezu, Andrea?  
Erantzun zion: “Zuk diozuna  
egingo det nik semea”.  
Joanek esan: “Pedron esana  
beteaz obe juatea”.  
“Justua eta bearra degu  
bere naia egitea”.

4

Eldu zan partitzeko eguna  
Jerusalena juateko,  
Birjiñak umil eskatu zion  
Joani bedeinkatzeko,  
biek batean juanak ziran  
txalopa baten sartzeko,  
bi urte ta erdi zitubenak  
Efeson pasatutzeko.

5

Iñoiz etzuen iñork ikusi  
era artan itxasua,  
ura izan zan aire gaiñea  
laiñotaraiño jasua.  
Beren txalopa milagroz  
golpeakin puskatua,  
aingeruak txalopa aidea  
zan batzuetan artua.

6

An zijuaztenak goratzea  
zeukaten ezagututa,  
etzekiela zer pasatzen  
zeuden oso pasatuta  
Etsaiak oiui egiten zien  
gizon itxura artuta:  
“Txalopa orri uti galdua  
al duenak salbatuta”.

7

Marineruak pentsatu zuten  
salba-lagunak zirala  
oiuka deitzen zien gizonez  
salbatuko zituala.  
Bakarrik utzi zuen txalopa  
nai zuna egin zezala,  
baiñan aingeruak zuzenduta  
txalopa eraman zala.

8

Pedro santuak buru bezela  
anaiak bildu zituan,  
apostolu eta ikasleak,  
Ama Birjiñan onduan.  
Esana zien: “Nere anaiak,  
juntatu gera gauzkuan,  
anai Paulo ta Bernaben dudan  
jartzera fede santuan.

---



---

## 96N. SALMOA: AMABIRJIÑAK, ERAKUTSI ZIEN EBAJENLISTA SANTUA

1

Pedro santuak Birjiñarekin  
onetan itz egin zuan,  
Jaun Espiritu Santuari dei  
egin zioten orduan.  
Jetxi zan boz bat Pedrorengana,  
itz auek esan zituan:  
“Pedrok izendatu ditzala lau  
eskribitzeko munduan”.

2

Au entzutean Pedro santua  
auspertia zan lurrean  
danak eskerrak eman zizkien  
auspez Pedroren antzean.  
Esaten die: “Anai Mateo  
asiko da aurrenean,  
Aita, Semea ta Espiritu  
Santuaren izenean.

3

Salbatzaillean erakutsiak  
Eleizari agertzeko,  
Anai Markos da bigarrenkoa  
berriak eskribitzeko.  
Lukas anaia irugarrena  
Jaunarek berrik jartzeko,  
Aita, Semea ta Espiritu  
Santua izendatzeko.

4  
Gure anai Joan izan dedilla  
laugarren azkenekoa,  
Salbatzaillean misterioak  
maitez eskribitzekoa,  
Aita, Semea ta Espiritu  
Santuaren gogokoa,  
Irutasunan izen berean  
berriak agertzekoa”.

5  
Mateok Ama ikusitzean  
auspertua zan lurrera,  
jeiki azita bedeinkatuta  
eldu zan itz egitera:  
“Mateo, nere serbitzaria,  
nator zuri eskatzera  
asi zaitezen eskribituzten  
Jaunak nai duan antzera.

6  
Onetarako jetxiko zaizu  
Jaun Espiritu Santua,  
au izango da maitetasuna  
nik berari eskatua.  
Ez da komeni eskribitzea  
oraindik nere kontua;  
bakarrik misterio bearrak  
nola zan enkarnatua.

7  
Jainkoa gizon egitea ta  
argitu misterioak;  
fedea sendo jartzen danean  
gizaldi etortzekoak,  
Jaunak esnago du nere berria  
fabore artutakoak,  
denbora ura eltzen danen  
dirade agertzekoak”.

8  
Santu Mateok, erantzun zion  
“Egingo det agindua”.  
Biek erabakitzen zeudela  
jetxi Jaun Espiritua.  
Beren aurrean idazten asi,  
Ama zan ezkutatua;  
berrogei ta bigarren urtean  
ebreoz eskribitua.

97N. SALMOA: LAU EBAJENLISTA SANTUAK

1  
Markus santuak idatzi zuan  
andik lau urte zirala,  
onek ere izketa ebreoz,  
Palestinan zeguala.  
Asterakuan argitasuna  
izatea nai zuala,  
aingeru zaindaria biralduta  
Amak, argitu zezala.

2  
Ama Birjiñak Markosen alde  
eskatu zion Jaunari,  
eta Jaun Onak: “Eraman Ama”  
agindu aingeruari.  
Otoitz egiten zegoan Markos,  
Ama agertu berari;  
ausperturikan “Ez det merezi”  
esana zion Amari.

3  
Erantzun zion Amak Markosi:  
“Nator Jaunak biralduta.  
Eskribitu zazu Berri Ona,  
berak dizu aginduta,  
Jaun Espiritu Santuak argiz  
maitasunez lagunduta.  
Misterio neri gertatuak  
ez jarri eskribituta”.

4  
Une onetan agertua zan  
Jaun Espiritu Santua,  
gorputz ta animan Markos izan zan  
argi berriak sortua.  
Birjiñaren aurrean zan Markos  
partea eskribitua.  
Ama Birjiña zala orduan  
irue ta bat urtekua.

5  
Lukas santuak idatzi zuan  
bi urte pasa ondutan,  
Akaian bizi zanean eta  
izketa griegozkuan.  
Ama Birjiña ikusi zuan  
eskribitzera zijuan,  
bestiak baiño gauza geiago  
Onek ipiñi zituan.

6  
Amak oneri esan zizkion  
nola izan zan sortua  
Jaun Espiritu Santuan lan  
izan zedin sinistua.  
“Baiñan fabore artutakoak  
ez esan” zan agindua;  
orduan jetxi Lukasengana  
Jaun Espiritu Santua.

7  
Lukas asi zan eskribituzten  
Ama Birjiñan aurrean,  
berak esan zizkion bezela,  
alaitasun ederrean.  
Ikuste ura oroitu zuan  
beti biotz barrunean;  
nola agertu zitzaion Ama  
argizko trunu gainean.

8  
Joan santuak idatzi zuan  
bera azkeneko zala,  
Jaunaren urte berrogei eta  
emezortzi zijuala,  
griegoz eta Asia Menor  
leku ortan zeguala,  
Ama Birjiña gorputz ta arima  
zerura juana zuala.

ALDALUR'tar Justiñe  
(klaratarra)  
(Gasteiz)

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

---

---

# BARRIKETALDIAK DIRALA-TA

---

---

**SARRERA:**

Nor-bera arrituta geratzen da, TVE-2`an 2.006`an Jorrailla`ren 15`ean, entzun eta ikusten diranean alako gauzak izketaldi baten.

Neure lagun-zar batek, antziñean esaten eustan egiaren gai-arloetan sakontzen asten giñanean: “TXARTO PENTSAU EGIZU eta IGARRI EGINGO DOZU” esaten ba-gendun. Gaur “TXARTO PENTSAU EGIZU eta LABUR GERATUKO ZARA” esaten eban.

Ez da gitxiagorako, eta geiago Eleiza-Katolikuaren Kardinal barria dan Kañizarez`tar Antonio`ren agotik entzuten ba-dira.

Bera, 325`an Nizea`n egindako Eleiz-Batzar nagusia-gaz eta 589`an Toledo`n egin zan Eleiz-Batzar Nagusiaz bat datorrela esan eban eta indarkeriaren batzangotasunezko menperazale eritzi orreitan oiñarrituta ikusi neban nik, bere erantzunetan alan agertu zalako.

Argitu daiguzan ba, Erromatar jaiotasunaren asmakuntzatik asi-ta: Zezar`en gogamenak; Konstantino`gaz Nizea`an artu ziran erabagiak eta Godo`ak Rekaredo`gaz Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusian artu ziran erabagiak zeintzuk ziran.

**ERROMATARRAK:**

Erromatarren izaera Etrusko`en asmakuntzatik sortu zan, oneik Sabino`ak eta Iszeres`ak alkartuta, Palatino, Kapitolino, Zelio, Biminal, Kirinal eta Abentino mendietan, aurreko-talde gudalariak ezarrira. Gero Tiber-ibaiaren beste aldeko auzotegi ta Janikulo, Batikano, Mario, Sakro, Pinzio, Kanpidoglio eta abar mendietakoak alkartuta K.a. 753`an sortu zan Erromatarren aundikotasunezko naikeriak, K.a. 510`ean lortuta .

Etrusko`ak jakitunak ziran eta Griego`rekin batera, onen iztegitik Latiña sortu eban. Erromatarrek, Godoak eta Eleiz-Katolikuak mundu guztian ezarri daiten ointzurrarte indarrezko-alegin aundietan ibiliko ziran.

**ZEZAR:**

Zezar, K.a. 45`ean agintari nagusia egin ondoren, Mundu guztiaren jaurkintzarako: “Kaizartza, Erljioa eta Izkuntz bakarraren” asmakizunean ibili zan eta orregaitik il eban.

Beragandik baiña, gauza bi oneik geratu ziran etorkizunerako: “Goian aipatutako iru tresnerizko ardatz orreik, menpetasunezko batzangotasunean eta maltzurkerizko iru itz oneik VENI, VIDI, VICI, leenengo asmakuntza lortzeko.

**NIZEA`KO ELEIZ-BATZAR NAGUSIA:**

Erromatarren berakadan, 325`ean Nizea`ko Eleiz-Batzar Nagusian, Konstantino`k Arriano`ren irakaspidea baztatu ta ziñauskerian gaitz-etsiratuta Katolikotasuna aukeratu eban danontzat.

“Katholiko” Greko izkuntzaren bidez datorren itza da, eta “OROKOR” edo “GUZTIENTZAKO DANA” esan gura dau. Jatorriz, Grekoera`ren KATA= “NORANTZA” eta HOLOS= “DANA edo DAN GUZTIARENTZAT” esan gura dauana.

Erromatarrek erabagi au artu ebenean, Zezar`en asma-kuntzan Mundu guztiarentzat “Kaizartza, Erljioa eta Izkuntz Bakarrak” egon daitezkan, Eleizari eskubide aundiak emonda, indartzeko zan.

Orregaitik, urrengo oinkadan artu zan erabagia: “Ludi onetan, kaizartza ta Eleiza JAINKOA`ren ordezkari baka-rrak zirala” esatea zan. Eta ortik aurrera, or ibili dira sinis-egi gogorakaz ta indarkeri aundian, gurutzada ta inkisizioaren sinistu ezineko azterketakaz, dana naastuten gaur arte.

**GODO`AK:**

Erromatarrek porrot egiterakoan, Justiniano`k lortu eban “erromatarren lege guztiak bildumatzea” eta Atanjildo (551-567) sinist-arazita, lagundu eutson orduan Godo`en errege Ajila zanari bere kaizarren ezar-lekutik bota eta bera Toledo`n ezartzea bere katolikotasunezko kaizar-jaurkin-tzan, erromatarren eskubideko lege guztiakaz.

Eta emen bitxi bat: Atanjildo`en ostetik Leobijildo izan zan urrengo errege 586`erarte.

Leobijildo, Ermenejildo Santuaren eta I Rekaredo`ren aita zan. Leobijildo`k bere seme Ermenejildo il eban Arrianismoa ez ebalako besarkatzen. Konturatzen da baiña, Konstantino`ren katolikotasuna dala bidea kaizar-tzaren ametsak garaitzeko.

Orregaitik, I Rekaredo`ri aolkua emoten dautso, katolikotasuna besarkatzeko, kaizartzak iraun dagian.

Onek, 587`an Arrianismoa baztartzu eta katolikotasuna besarkatuta, 589`an Toledo`ko III`n Eleiz-Batzar-Naguziak batu ebazan bere agindupean, eta ortxe emoten jako indarra oster be, erromatarrek euki eban asmakuntzazko menperatasunaren batzangotasunari, iru baldintza oneikaz: “Grazia`ko jakituria; Erromatarren legea; Eleizaren katolikotasuna”. Eta orren ondorioan, Merkataritzarako bear diran gai-aberasgarri ta mozkin guztiaren kontrola. Europa guztia, eritzi bardiñean ezarrira.

**ONDORIOA:**

Erromatarren asmakizun ori aurrera eroateko, JAINKOA`k Mundu oneri ipinita daukazan berezko legeen aurka, argi dago erabagi politikoa zala eta gaur egun dala, naastuta diranen artean sasi-jainkotasunean bizi-gura dabeneztat. Erabagi ori, ez dalako bakearen eta pozgarritasunaren bidea.

Kristautasuna orduan, zelan banandu bear dogu ? Kristo`ren irakatsian ikasitakoak alderdi baten eta... katolikuak beste alderdian ? Orduan... zer dira katolikotasunezko eritziak ? Argi dago, eleiz`tar batzuk, Kristo menpetasunaren lokatzarteko zinkikerian sartu gure dabela eurok kaizar`tzangotasunean bizitzeko.

Iruditzen zarie baiña... zelangoa izango zan lokatzarteko jaurkin ori ? Erdi-mendearen negargarritzko denborak aaztu barik, "gaurkoa". Nortasunaren lotsagizunezko ardurak esku batzuetan menperatuta agertzen ba-dira, erritarrak, lotsagizunaren arduragabea agertzen diralako, noraezko bide galdu baten.

Orreik dira gaurko egoereak eta olangokoak dira Kañizares`tar Antonio onen sinismenak. Kardinala gaiñera ? Ondo goazak !!

**EUSKALERRIA:**

Euskalduna beti izan da Nortasun aundikoa, eta orren neurrian fededuna. Iñoz ez da joan iñoren lurak ez giza`rik bere mezederako menperatzen. Ez eta ondasunik be, bereagaz konpontzen zalako.

Menperatzaille zaleak, Euskalduna lapurra zala esaten eben, bere bizi guztian aurka egin dautsielako, Euskal-izaerazko nortasunaren babesle.

Urriñetik begituta be ez da egia ori. Bakarrik goian esan dotezan lau baldintza orreine bidez, Europa osoa morroien morroitasunezko giza-bide baten ezarri ebelako, Euskalduna bere lanakin al eben egi-bideko era-ezberdiñetan konpontzen zalako eta dalako bizirik irauteko.

Mundu zabalean be asko ibili da, eta atzerriko erritarrak beti esan dabe: Euskalduna ez dala izan Gaztela`tar edo Espaiñol-menperatzaille antzekoa, sinismenduaren berba aundikoa dalako.

Euskalerrian Kristautasuna sartu zanetik, sinismen aundiko gizartea izanda beti. Eta Eleizak gaur utzik agertzen ba-dira, ez da berak JAINKOA`gan sinistea itzi daualako, eleiz`tar batzuk eta Laterriaren menperatzaille zaletasunezko kide batzuk esan eta egiten dabezan maltzurkerizko guzurrakin gogaituta gagozelako baizik.

**ELEIZA TA POLITIKA:**

Esaten dabe, Eleiz`tar katolikuak politikan ez dirala sartzen eta ez dago guzur aundiagorik.

Ez da sartuko Laterriak egin bear daben jaurkinezko politika-ekonomikotan, baiña bai Europa ta Mundu`ko lurraldeen banaketan, eta ekintza ori politika txikerra izan

barik, goiko politika da, oraindiño bere eskuetan dagoelako, erromatarren sakratuzko kaizartza ori. Mundu au, nagusi orreine eritzitara bideratzen dauana.

Ez dotena aituko sekula, JAINKOA`k gai`ezko zerulur oneik, BERA`k ipinitako legeakaz Ludi onen gai guztia berezkotasunean oiñarritu ba-dau, batzuk edo asko, zergaitik agertzen diran berezko lege orren aurka. Sasi-jainkotasunean bizitzeko ?

BERA`k, berezkotasunezko lege orren bidez, bakoitza lotsaren ardurapean NOR IZAN-DA bialtzen gaitu lur ontara, eta gure babeserako berez senitu, auzotu ta erritu egiten gara bakotzak bere Nortasunarekin eta mailla orreitateko nortasunean, bear dogun lurralde baten.

Mundu onetan NOR da NOR.... Nortasun orreik ezeztutuko ?

Zeren atzean dabilz..... menperatzaille ekintza orreik egiteko ?

Nik eta nire errian beti babestuko dira JAINKOA`k gure izaeraren biderako Nortasunean oiñarritu gaitun lotsagizunezko ardurak betetea, nire ta nire erriaren bizi-izaeran bear-bearrezko ordezkotako diralako.

Zergaitik eukiko dabe ainbesteko premiña Mundu onen gizartea batzangotze`ko ?

Ezin itxi berezkotasunaren gizon/emakume ta errien garaipena izen daiten ?

Ariketa orreik, ez dabe ekarten besterik, Nortasunak daukan izaeraren erak aldatzeko amaibako aukeratan, aldatzen ibiltea etenbako eriotz-odoltsu baten baiño besterik ez. Azken baten berezkotasunean izan bear dauana, JAINKOA`k bakoitza Nortasun orren ordezkotako ardurapean sartu gaitulako.

Aita Santuak bere Mundu`ko erri guztien aipamenean...aipatu ez !! Europa`n Euskalerria erri zaarrena dana ? Euskaldunai, San Inazio, San Frantzisko, Aita Bitoria eta ainbat abar.... ainbeste zor dautsonai ? Zerbait esan eban, eta ondo, gaurko baketze-bideari buruz.

Ori politika utsa da, eta politikako zaku ortan dagoz sartuta Rouko Barela, Kañizares`tar Antonio, Aznar, Fraga eta ainbat abar. Sozialistak aztu gabe.

Ni arrituta geratzen naz, guzti oneik edo geienak beintzat, maritxuak edo andre-gixon`ak bereztasunetik kanpo dabizelako madarikatu eta eurak berezko errien iltzalleak izan !!

Aita Santi`k, antziñetik esaten eustan, berezkoa dan gure EUSKALERRI maite onek, "etsai asko daukazela !!".

"EUSKALDUNAK, BADAIGU BAI !! ZER DAUKAGUN AURREAN; NORKERIZKO TXANTXETAN IBILTEKO".

**ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.006`an JORRAILLA`ren 18`an**

---

---

# GAIARRE ABESLARIA

---

---

Ba al da gure artean (areago euskaldunen artean) kanturik entzun nai ez tuanik?

Seaskatik, gure amaren ezpañetatik entzuten genituen lenengo abesti maitetsuak erdi loan eta bai kuluma gozorik artzen genduanean.

Izan ere, kantu gozoa bezelakorik ez dago miña gozatze-ko-baretzeko, irriparra aurren ezpañetan sortzeko eta munduko edezein tokitako doiñu marmaritsua entzuteko.

Euskaldunok kanta-zale gara eta Gaiarre ere, gure antzekoa zanez, abes-zalea zan, txit ona gaiñera.

Naparroa'ko Erronkari errixkan jaio zitzaigun eta bertan lurperatu zuten illobi dotore-ederrean.

Txikitandik etxeko artaldetxoa zaintzen ibilli ta gero, zeinik pentsa zezakean, errementari izateko saiatzen ari zan mutiko gazte ua kantuen goen maillara elduko zanik urtetan zear?

Baiña bai! Europa'ko antzoki izen aundikoetara joan aundiko bidaiak egin zituan: Viena'ra, Bruselas'era, San Petersburgo'ra...

Bere erritik urruti etzion euskerari muxiñik egin. Idatzi zituan eskutitzak, nik irakurri ditudanak, gordeta daude datozen gizaldietako gazteak jakin dezaten gizon ospetsu batek zenbateraiño maite zituan amaren ezpañetatik ikasitako itzak, lantegian zerabilzkian esaerak. Abesbatz txikia eratuz, arro sentitzen zan. Gaztearen abestien oiartzuna lantegitik inguruetara zabaldu zan.

Eslaba ospetsuak errementari-kume arek kanta oi zituanak entzunik, aren abots zoli ta ozenak benetan, bere babesean artu eta Madrille'ra eramane zuan, iñoiz entzun etzituaukan sakonetik ikastera.

Gaztearen balioa ikusirik, Naparroa'ko Aldundiak diruz lagundu zion Milan'en, "Kantorien Katedrala" bezela ezaguna zan jauregi eder ontan ikasi zezan abeslari on batek ikasi bear duan guztia.

Zoritxarrez abeslari gaztearen erti-bizitza etzan luzea izan.

Gazteak bere lanari jarraituz etengabeko txaloketak jasote zituan deitua izaten zan aretoetan.

Ontan ogeiren bat urte joan zitzaizkion. Zorionka zetozi-kion lagunak, aundikiak eta goi-maillako aberatsak eta baita erregeak ere.

Izan ere, gaztearen abotsa zillar-ari antzekoa zan eta bes-tetan trumoi itxurakoa. Zirrara uts zeritzaien entzuleai.

Lagun miña izan zitzaion Saratsate, euskalduna ere bai. Eta noznai Gaiarre ta Saratsate arrabataria edozein tokitan abestuz diru-batze ugariak egiten zituzten. Bearrean aurkitzen zan gizajoren bati, eskale edo-ta laguntza bear zuan edonori ezinbizia arintzeko.

Etzuan, zoritxarrez, urrango gizaldirik ezagutuko, Madrill'en errege-antzokian kantuan ziarduan ospakizun batean, abotsa etenegin zitzaion eta kordea galdurik lurrera erori zan. Andin egun gutxira 1889' garren urtean il zan eta Erronkari'ko oroigarri bikaiñean eortzi zuten, euskaldun abeslariaren eredutzat artua.

**Egaña'tar Gotzon**

## AFRIKA: ALKAIRO

Au da Afrika'ko uri nagusia, arabiar batuen uriburua, mundu bi alkartu bear dauzana.

Nilo-ibarragaz batera inguruak area ta aitzak ditu eta piramide edo txunturrak, esfinjea. Uri au antxiñakoaren eta barriaren nastea da: Kale zabalak eta estuak, berebillez eta tarrant aundiz beterik, etxe galantak, kale txiki, estu ta okertuak, denda zaratatsuak, asto-burdiak kalea batean. Gora begiratu ezker, milla mezkita ta almenarak.

Gizakien artean europar jantziak eta soiñeko luzedunak alkarren ondoak, oneik turbante edo buru zapiakaz, eta areik kapelakaz. Nilo-aldetik txalupak salgaiz zamata, ibai gaineko millaka zubitxuen azpitik.

Alkairo zaarra, alkairo barria, biak batera ikusteko, Saladino sultanak egindako gazteluaren gaiñera igon bear da. Andik agiri dira mezkita, etxeak, jauregiak, bazar arabiarak, eta urrutira aretza legorra.

## AFRIKA: IRU MAGHREB

Lurrarte Itxasoaren ertzean Afrika'k iru errialde ditu: Marrakitx, Aljeria ta Tunizia.

Irurak dira lore-soloak eta udabarrian margoz beteak. Or agiri dira alkornokeak, larañak, platanok, maastiak, eukaliptuak, orio-landarak, palmondoak... baiña itxaso urriñetik begiratu ezker, lurralde legorra. Urik ez.

Turkiarrak alde egin ebenean, lurralde aberats oneik atzerritarren menpe geratu ziran.

Frantze'k 1830n. urtean bere esku artu eban zati bat, baiña errialdeak banatuta geratu ziran.

Marrakitx eta Tunizia, len bereber askatasun-zaleak ziranak, Islan'en morroi geratu arte odol asko isuri zan or.

Baiña etorri zan aberastasuna mende bat geroago: Gaiso-etxeak, andaparak, biztanleak bost aldiz ugaritu, bide barriak... bakea ta aberastasuna lortu ebezan, baiña txiro-itxuran jarraitzen dabe.

Tuniziarrek salerosketa dauke.

Lortuko ete dau Afrika-alde onek aurrerapena?

Urrengorako izten doguz. Aljeria ta Sahara.

**Olazar'tar Martin'ek**

# NAPARROA ZARRETIK (4n. Saria)

## EUSKALERRIA ASKI DANEZ, NABARRALDE BERRIRA ESNATUTA

Egusentia. Eguzkia gaiñik gain keiñuka printzaz ari da, NABARRALDE osoa jazten.

Euskaldunok zertan diardugu? Okuntza ta lurmen beltz berri billa zotalak pritzatzen? Lurra muskillez aldizkatzen? Mendietako gordeguan zuduz kimetan dagoen euskal altxor-azia gau ta egunez geroa zaintzen? Ala Mari'ren leize zuloak, amets-urrez beteak, aberri-kantuz eta belaiñoz ixten?

Millaka urtetako erro daukan euskerearen oraiñak bekarigü Irazalek be'letsu, ongi merezitako etorkizun urdiña atzera begira gabe. Auxe da gure naia eta bultzatzen gaituan bizi-maiña. Geroak du gure patu tirabiratsua epaituko.

Euskal katebegia beintzat ez bedi eten.

Xurru-xurru gure odol zarra berrituz doa astitsu. Jasan eta jasaten ditugun erdeiñu, ostiko,sakail eta zauriak oianetako basa-belarkiz, aztikeriz, akelarrez eta gatzukiz terapia gisa gardozten eta etsaiekiko zirikadak albaitean kontrolatzen. Jainkoa'ri arrenkatzen gure okermiñak errotik erauzi eta Nabarralde egin dezagun lur jareia eta etorkizun aukerakoa.

Aaa! Noiz utziko gaituzte lotzen gaituan erdal gerruntzerik gabe eta nai bezela gure erria zaintzen?

Aiots ituna! Euzkadi ondoki sakonean biotz-ikaraz entzuna. Zuzpertz, adi, euskalduna. Ez, gero, etsi! Nabarralde oraingoa eta betikoa izan bedi, zuaitz-antzeko:erro sendoko azpitik, animaren sorlekuan, burua adartsu aidean, pake zabalean, goitik ar dezan argia, orlegigorria. Ez dugu nai, illunpean argi-zurtz bizi. Ez gau orbantsuaren kerizpean. Argi-gose egin ginduten gure okibilaso asaba burutsuak, laiotzean edo errepelean, ixil-uesle edo lanean kantari.

Egoko edo auzoko arlote beltzeran zekenak orra nai dutena: euskalduna jopu egin, menderatu! Guk, ordea, naizta zantzu itsusia aidean oartu, ez dugu burua iñoren ankapean lots-bildur makurtuko. Etorriko da bai ozenki mintza eta dantzatzeko eguna. Noiz? Biar? Euzkadi'k ez gaitu nai intziriz eta zotinka. Alai baizik.

Nabarralde iraupenean datza. Eta ez dio ezerk eutsiko euskerak baizik. Beraz, gure elburua, abertzale garonena, erri osoa indartzea da. Ez dugu nai "geroak esan bezari"rik, geure arteko olerkari punterengo batek idatzi digunez. Illetarik ez! Pizkundera! Pizkundera!!!

## LEN ETA ORAIN

Mundua mundu zanetik, odei eta lanbro tartean zakust iraunean, gure Nabarralde txikia! Zure sorretatik amabi milla urteko izkuntza, ortz eta agiñez danen aurka ari gaituz aldezten. Zure kabi beroan nago erroturik odolez, endaz

eta abizenez. Bekaitzez erdal jopu biurtu nai zaituzte, giza itxaso politikuan galduxa. Maityagarrien zaizean utzia.

Aldiak ez du iñoren, ez ezeren errurik. Eta eriotzak sega erakusteko ba'dauka betarik. Israel'ek galdua du lurraldea eta auzokoekin etengabeko gerratea. Gogorra, gero, atzerri, erbeste, Mesopotamia, Babilonia... Eta izkera? Inpernuko ondar-ar betek joa. Etsia artuxe. Itzaren surik gabe. Eliezer etorri arte, judutarren ezpain kuxumuxuaren negua.

## GOROLDIOAREN DEIA

Olategi bateko ke kirastutik igersi, biotza irakiten aberri-suz, lau euskaldun dijoaz mendiruntz bertso-kantari. Bertso-kantari ez ezipaiñetan, jakiña! Munduko lenengo izaki aien mintzoan. Itzuleraz, asturuz beazuna jario, ixildu-azi egiten diete (sinist-ezin) laukale polizik:

– Ez da kantatzekoordua eta ez lekua. Ezago euskeraz aritzekoa.

Gazteok beurenari eutsiz (auntzaren gaberdiko putza!) sutarazi eta liskarrean dira poliziakin asi. Zioa; susmapeko euskera ez besterik. Jarduki zakarreko erdal poliziak apetaren arabera dute kulataz eta ostikoz itxillua erabaki. Bat jo, beste kolpatu eta azkenik danak atxillotu. Garraxi ta oiü. Alperrik! Nun gaude ba! Tira! Ez gaitezen ozpindu.

Erri-bizitzaren bultzian, ainbat aldiz, ainbat gaitan, euskaldun bezala, miiz, arnas berroz, gu gurean erroturik jarrai naian.

Baiñan bai zera! Lege zapaltzailleen aldetik emen zankarte, langa ta jipoia. Oztopo irauntsu an iri kaletsuan. Arrazoi mamia zaurituz. Erriaren zuzen-gosea ta bereigaintasun-irrika ukatuz, abertzale-kutsuko guztia zanpatuz. Jauna! Sorkabia maitatzen noiztik da pekatu!

Erderaren pixutik irteterakoan ez bedi Euzkadi itzik gabe galditu.

Biotzeko Euskalerrri! Bertako kulturaren, goroldio ezebigunean nai dut bizi jardunean, lanean, ernai, alaitasun aparrean, sendi-giro jatorrean.

O Israel, O Euzkadi! Asturuak aurka? Gertatzen ari zaitzutenaz anima goibel, korapillatsu? Ez amore eman jaingo txikia. Gizaki gera Goiko Aren eskuz intza bezala sortuak. Ez abereki!

Urrun artan, ilun arian gau aunatuak ba-daki urbil dala, odei eztañaz Israel'en oillaritea, argi doaz ernari Eliezer Ben Jehuda'ri esker. Olako bat, olako bi,olako amabi... bear genituzke, adorez jantziak gure aberrian!!!

## ERDARA KANPOTIKO LANDARA

Euskerak egin gaitu euskaldun, ta berau dugu bizi artean gure funtsezko euskarri ta ondasun. Ongi dakigu

## IPUIN-SARIKETA

zer dan gure izketaren bizi-sua, odol zaiñetan sentitua. Orregaitik nai digute zur-zulotik sartu beuren gernu ta gorotz.erdara. Israel'en eduz, gure Erri oni betorkio lenbailen samin ordeko askatasunaren poz eta irria.

### BEN JEHUDA REN LANA

Eunka urtetan zearo illik zetzan Israel'go izkera aren alde, neke ta gorabera askorekin bere bizitza eman zuana zan Ben Jehuda, abeleraz eta erabakiz ornitutako gizona. Gori biotz labea, egamin, ez aipu otsez, ez sai-zun, ametsen illdotik, mukulu barik goi-miñez igurtzia. Aal misteriotsuz, baikor eta itxaro-sen aundiko gizon alegintsua.

Sabin dar aizea bezain isiti ari ta ari zegion fu-ta-fu illinti ondakintsuan bere lanari, fedez.

Begokit galdera eta urbil gakion gizonari: Zer da ba judu betazpitsu onek egin ziguna? Eguzkia eskuratu? Ez, areago! Eberkera illa piztu.

Amarkadatan, denpora-aldi magal luzean erio.untzaz irolduta zetzan profeten izkuntza, Eliezer'ek ubelgorriz, igudiziz kanpai-ots beti-miñez FENIX baten antzera, lebitarren izkuntza sagaratuan ustez betiko il-bearra zegokion (ezinbesteko suntsiera) talmud-zapiz eortzitako EBERKERA.

Eriotsua deitu zioten egin eta ordaindu ezin dan guzia-gaitik.

Amets-bidean jartzen gaitu euskaldunok. Noizpait eberkeraren antzera euskerak burua irmo jasoko al-du. Ta euskerarekin gure Erri osoa.

Gizonkiro, jakintza-sena jariotzen, olermen lastargiz piztutako Dabid'en salmudi majikuan bizkarra, okuntza biotz-laiez labakitzen beti akion.akion, larruxkak uxarean aritu zitzaigun atzartasun aundiz.

Lekaroan oiurriak dantzazten arilkoa. Errape onak naas-molko lez lauskitu zigun arretatsu, jakintsuen galbaitan iraziz, noranaiko kulturbiderako egokituz, antziñakoa, oraintsukoa, edezertarakoa, Lizardi gureak bezela garunari ekiñaz euskeraren goruan irule. Erdipuzkeriak arbiatuz, guztia guntu arragotu. Jori ta tajuz zuzpertz, geldizaleen bildur eta ergelen asarre ta isekak uxaraziz, oldartien antsiak zuzenki xamurtu zituan. Gogo onez dana baretu. Bai jainkozko doaia arena.

### ELEIZER EN BIZI-ZEETASUNAK

Eberkeraren urre-aroa gertu nai zuan onek bizitza jarri zuan goiasmo orren alde.

Errusia mendeko Lituania'n 1 858gn. urtean jaioa, irakurritako mariñel batek zoriketak eberkeraz ere erabiltzeko baliogarri zitzaizkiola sinistuta zegoan.

Bi amets ditu 1917 urtea ezker: iztegia bukatzea eta arbasoen aberrian lur artzea. Azagak asko eskatu zion eta il bear izan zuan goretsia izateko. Azken itza (nefesh) (anima) mamitzen eman zituak azken-urteak.

### EBERKERA TA EUSKERA

Erri danak edo-ta bear-bearrez daramate bere izatezko garapenean misterio-zati bakan bat, oso eragingarri ta aurrerakoa. Judu-erria ez da bereizpen bat. Misterio guztiak agiriko eta soiñutsu ba'lira tronpetak otsenkatuko lukete durundan ba'leudekean. Gure euskal izkuntza, morfologiz ain aindur, mendi-ijoltsu soiñutasunez, gu euskaldunok soagarritzen omen gaituala esaten dute, eberkeraren antzeko anaitasunez.

Oxintxu (Egaña'tar Gotzon)

## URRIÑERA

Urrindik kusten dot  
Euskalerra maitea  
bizitz ederturik,  
gora-goraka doa  
erri bizitz aroa  
indarrez goiturik

Erri txit indartuak  
agertuten doazi  
zelai aldietan,  
lantegi nagusiak  
jabetuaz lanean  
toki bikaiñetan.

Urrindik ikusten da  
erri jaun nagusia  
beren egiñetan  
gizonak, zurki, doaz  
biziaren ondoren  
goizeko orduetan

Urrindik ikusten da  
ke bizitzaz ondua  
tximinian gora,  
bizia ontzen doa  
lanez ta jakituriz  
bear dan erara

Lantegi agurgarri,  
bearra eta poza  
emon gizonari,  
sendi maitagarriak,  
egiz, izan daitezkan  
lurrean ugari

Urrindik ikusten da  
lan aurrerapidea  
euskaldun errian,  
lan-zoka eder ori  
sendotzen iun dedilla  
gizonen bizian.

Paulin

## BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\*



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Sala  
Departamento de Cultura

ALDIZKARI ONEK  
BIZKAIKO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU



## GERRA-AURREKO DANTZARIAK

1910-1914 urteetan eta geroago be, Zugatzu´n, Santa Barbara dantza-taldea lortu zan.

Urte asko geroago, Kurtzeko Batzokiak eta Usansolo´koak euren dantza-taldeak euki ebezan, eta Erletxeetako batzokiak be bai.

Dantza-taldeetan mutil nagusi eta txikerren taldeak be izaten ziran, baita nesken emekume dantza-taldeak be bai.

Kurtze´ko batzokiko neska-mutillak euren dantza-saioak Plazakoetxe´n, Bar edo taberna Gerediaga izenekoaren azpiko tokietan egiten ebezan.

Mutillen dantza-irakasle Zamakoa auzoko Bitor Zurimendi izaten ei zan eta neskena, au be Zamakoa´ko Elena Artetxe Zabala anderea izan ei zan.

Bengoetxe´ko auzotik, dantzan neskak baiño ez ziran joaten eta eurok Tomasa Lekue, Bixenta Urgoiti´ren eta Sabina Zarandoza izan ziran.

Arku-dantzarako aroak egitea, Zugatzu´ko Maria galanta eritxon andra batek urretxazko palueakaz lotzen eban.

Kurtze ta Tximelarre auzoetatik be neska-mutillak dantzan ibilli ziran.

Emakume-taldeak urte ta erdi-inguru iraun eban, 1936n. urtera arte.

Bengoetxe´ko neskakaz Kurtzeko batzokian dantzaten Sorne Bilbao Bergara, Bene Uranga, Marianjeles Barela eta beste batzuk be izan ziran.

Mutillen arteko batzuk Jose Migel Bilbao Bergara,

Jon Uranga, Fruktuoso Uriarte, Santi Izurtza, Juanito Jugo, Bitor Aramendi, Jose Bilbao, Benigno Fernandez, oneik izan ziran

Usansoloko batzokiko dantzarietatik Luis ereño, Iñaki San Migel eta beste batzuk be bai. Orduko denporan sozialistak Usansolo´ko batzokiari tiroka ekin eutsoen eta iñaki San Migel mutikoa il zan.

Erletxeetako batzokia gasolinera-ondoko taberna-gaiñean egoan. Eta dantzari-taldea 1936n. urtean prest euken. Dantza-saioak tabernearen alboko arkupean egiten ebezan. Dantza-maixua Usansolo´tik etorten zan Etxebarria´tar bat izaten zan. Ezpata-dantzari talde lez bertotik kanpora egundo be ez eben dantzatu.

Dantza-taldeetan mutil nagusiak, mutil txikerrak eta neskak izaten ziran.

1931 eta 1932n. urteetan Sabin Zenarruzabeitia organularia, ezpatadantzaria be izan zan. Urte orreitan Getxo´ko Areeta´n, Ibaiondo´ko landan egin eben dantzan Galdakao´ko beste dantzariakaz. Eta Sabiñ´ek, beste 2 000 dantzariren artean dantzatu eban.

Galdakao´ko dantzariak, errian bertan eta Durango´n, baita Etxebarri errian be dantzatu eben. Zenarruzabeitia´k dantzari izatea itzi ebanean, eta gerra-aurrean, Galdakao´ko dantzariakaz eta beste bi milla dantzarigaz Bilbo´ko San Mames landan egin zan jaialdian parte artu eben.

1933n. urtean Lizaso txistulariaren eskintzaz eta eskaeraz be Sabiñ organulari ta dantzariak, txistulari-lana egin eban. Urte orretan Galdakao´n txistulari-taldea osotu ei eben onelan:

Anjel Arostegi (Musika. Banda´ko oboe-jotzaillea) bigarren txistularia; Sabin Zenarruzabeitia (organularia) txistu aundi eta silbote-jolea, eta Eli Bustintza atabaleru edo palu biko tanbor-jolea. Lau txistu-taldekook eleizan abeslari be ei ziran.

1936n. urtean, Kurtze, Usansolo eta Erletxeetako dantza-taldeak desegin egin ziran eta beste leku askotan be bardin jazo zan.

1933n. urteko iraillaren 10n. egunean, Bergara´ko errian txistulari-taldeen txapelketak izan ziran eta Galdakao´ko taldea be bertan egoan, baiña Sabin silbote barik. Orduan bigarren maillan jokatu bear eta lenengo saria irabazi eben galdakaotarrak. Lenengo maillako talde



*Galdakao´ko Dantzalariak 1932n. urte-inguruan, Andra Mari´koak be euron artean dirala. Argazkiak lortu dodaz. Feruktuso eta beronen emazte Esperantzari eskerrak. Gure eskoi-aldetik, txistularien alboan makurtuta Fruktuoso jauna.*

## DANTZAK



*Galdakao'ko dantzalariak 1932n. urte-inguruan. Gure ezker-aldetik eta zutunik, lenengo txistularia, gero eta buru-gaiñean fletxatxu bategaz Fruktuoso Uriarte ezpata-dantzaria eta irugarrena bandereagaz. Txistulariak Barandika baita Arostegi be eta atabal-jotzaille Bustintza jauna. Fruktuoso ta esperantza'ri ezkerrek, argazkiakaitik.*

osotuetan Lizaso'k bere Errenteri'ko taldeagaz lenengo saria lortu eban. Bergara'ko txistulari taldeak ez eban parterik artu, naita onak izan, errikoak ziralako.

1933n. urtean beste eun-bat txistulari galdakaotar Gasteiz'ko Aberri-Eguna ospatzera Araba'ra joan ziran.

**Jose Mariano Barrenetxea**

---

## ESKERRAK JAUNARI

Biziaren indarra  
Jaunagandik artu dot  
Euskalerrri ontan,  
egitan, bikaiña da  
eusko lur aintzatsua  
mundu zabaletan

Mendi tontor bikaiñak  
nun-nai, agiri dira  
zerura begira,  
ederren zein ete dan  
ez da.erez,jakiten  
bikaintasunera.

MAXA zoriotsua  
danen artean dago  
ederrez jantzirik,  
ez aundi ta ez txiki  
bien artean dauka  
biotza zabalik

Gaiñik gain doa, beti  
eguzkiaren poza  
bizia argitzen,  
gain guztiak izketan,  
zoramenetan dagoz,  
zerua agurtzen.

Euzko seme-alabak  
erri onen ederrez  
arriturik dagoz,  
ederragorik ezin  
aurkitu lei lurtean  
gizonaren asmoz

Egiz, esan bear da,  
gora gure Jainkoa  
edertasun ontan,  
o,,Euskalerrri maite,  
gurtu zure Jainkoa  
lur bikain onetan..

**PAULIN**

# IZAN ‘SER’ ADITZAREN ADIZKIEN JATORRIZKO SORRERA

Gaur egun, indikatiboko orainaldiko forma arruntenak onek dira : *naiz* ‘yo soy’, *aiz* ‘tu eres’, *da* ‘él es’, *gara* ‘nosotros somos’, *zara* ‘vosotros sois’, *dira* ‘ellos son’. Denpora zarretan *zara* plurala zan eta esangura orregaz artzen dogu gure ikerketetan. *Aiz* singularra zan mailla guztietako gendearentzako.

Aztertu daigun zelan izan zan euren asierako sorrera. Gure aurreko artikuloetan alegindu giñan probatzen sorrerako izenordaiñak *neur*, *eur*, *geur*, *zeur*, *beur*, ziralda. Orre-la, gaurko *na-iz* ‘yo-soy’, zati bitan ipinita, *na-*, lenengo-koz zatia, *ne-ur*-etik dator eta bigarren zatiko *-iz* ori *izan*-etik. Beste pertsonak be bardin. Sorreran, teoriatzko zerrenda osoak olan izan bear eban : *\*neur-izan*, *\*eur-izan*, *\*geur-izan*, *\*zeur-izan*, *\*beur-izan*. Geroago, izenordaiñen *-ur* ori galdu zan ez zalako ain premiñazkoa ta baita be, orainaldian, *iza-n*-en amaieran egoan *-n*, onela : *\*ne-iza*, *\*e-iza*, *\*ge-iza*, *\*ze-iza*, *\*be-iza*. Bestalde, or ikusten dan *-e-* ori, *-a-* biurtu zan : *\*na-iza*, *\*a-iza*, *\*ga-iza*, *\*za-iza*, *\*ba-iza*. Argi dago, *\*na-iza* ‘yo-soy’ singularra dala ta *\*ga-iza* ‘nosotros-somos’ plurala. Bardin *\*a-iza* ta *\*za-iza*, sorreran. Baiña, *\*ba-iza* ‘él-es’ eta ‘ellos-son’, singularra ta plurala da, biak batera, ta nasketa bat sortu zan alkar ondo ulertzeko. Nasketa orreri iges egitearren, gure ustez, *\*ba-iza* ‘él-es’ singularrerako laga zan eta *\*ba-izza* asmatu zan pluralerako, aditzaren erroko *-z-* ren soñua luzatuz ugaritasuna adierazteko. Eta gauza jakiniña da, *-z-* bi alkarren ondoan dagozanean *-tz-* soñua billakatzen dala : *ez zan etorri* > *eTZan etorri*. Bardin ba, *\*ba-izza*-tik > *\*ba-itza* ‘ellos-son’, pluralerako, *izan*-en erro “indartua” sortuz, irugarren pertsonetako singularra ta plurala ondo bereizteko. Aldaketa onek egiten auskalo zenbat mende igaro ziran.

Jakintsu askok onartzen daben legez, *\*ga-iza*-k eta *\*za-iza*-k ez eben bear pluraleko beste marka berezirik ez eukelako nasterik euren pareko singularrekaz, baiña, analogiaren bidez, eurak be, repluralizatu egin ziran : *\*ga-itza*, *\*za-itza*. Alan be, gure asaben gogo bizia nasketatik alde dagien ez zan ondo ase. Zalantza guztiak ezabatzeko beste gauza bat asmatu eben : *\*ba-itza* pluralak daroan lenengo-koko *-a-* kentzea *\*b-itza* egiñez, singularreko *\*ba-iza* baiño askoz be ezbarðiñago. Garrantzi aundiko gertaera izan zan au, kasu onetan *\*ga-itza*-k eta *\*za-itza*-k ez eutsoelako jaramonik egin *\*b-itza*-ren bigarren aldaketa oneri. Ea noizkoa izan leiken adizki onen sorrera ta alan be gaur arte eldu jaku bere lekukotasuna jakiteko zelan gerta ziran orduko aldaketak irugarren pertsonako pluralean, onako zerrendan ikusten dan legez :

	<i>d-ir-a</i>	ellos son	(intransitivo)
	<i>d-it-u-Ø</i>	ellos son	habidos (por él) (transitivo)
(izan)	<i>d-it-ezen</i>	ellos sean	(intransitivo)
(izan)	<i>b-it-e</i>	sean ellos	(intransitivo)
(izan)	<i>d-it-zaten</i>	ellos sean	habidos por ellos (transitivo)
(izan)	<i>b-it-za-Ø</i>	sean ellos	habidos (por él) (transitivo)

Danak *-a-* gaz daukez euren kideak : *gara*, *zara* ; *gaitu*, *zaitu* ; *gaitezen*, *zaitezen* ; *zaitte* ; *gaitzaten*, *zaitzate* ; *gaitza*, *zaitza*. Pluraleko irugarren pertsonetako adizkiak

bakarrik *a-* barik. Amendik aurrera be saiatuko gara kasu onek erakusten deuskun esangura obeto adierazten baiño oingoz esango dogu sei adizki oneen lenengo zatia, *i-* daroana, bakar-bakarrik gerta leiteke sei zati orreek adierazten badabe irugarren pertsona pasibo plurala, au da, izan intransitiboaren sujetoa ta aditz orren erro indartua.

Argudio onekaz adierazi gura dogu une baten adizki oneen zerrenda onela zala : *\*naiza*, *\*aiza*, *\*baiza*, *\*gaitza*, *\*zaitza*, *\*bitza*, indikatiboko orainaldian. Onerarte ez ziran sortu sujuntiborik, potenzialik, etab. *naiz* eta geroago indikatiboa izan euren jatorria. Indikatiboko adizki oneetatik sortu zana izan zan “imperatiboa”, au be indikatibotik datorrelako. Orregatik daukaguz *bedi*, *bite*, *betor*, *bekar*, etab. asierako *b-* gaz. Jakintsu askok esan dabe imperatiboa indikatibo berbera dala.

Bestalde, *da*, *dira*, etab. *d-* gaz agertzen dira. Mitxele-nak probatu eban *d-* izkia ez dala euskera jatorrekoa ta orregatik esaten dogu, iñondik etortzekotan, *b-* jatorretik datorrela. Aldaketa onen adibide legez zerrenda laburtu au ipinten dogu : *abar/adar*, *abaro/adaro*, *barga/darga*, *abareta/adareta*, *albagela/aldagela*, *parabisu/paradis*, *primabera/primadera*, *babil/badil*, *daube/daude*, *zeubek/zeudek*, *euben/euden*, *bezate/dezate*, *bezazu/dezazu*, etab., etab. (Asko be luzeago da zerrenda au). Orduan, sasoi areetako une baten *\*baiza* > *\*daiza* ta *\*bitza* > *\*ditza* billakatu ziran. Aldaketa au eginda gero sortu ziran sujuntiboa etab.

Aldaketa geiago izan dira gaur arte: *\*naiza* > *naiz*, *\*aiza* > *aiz*, *\*daiza* > *da*, *\*gaitza* > *gara*, *\*zaitza* > *zara*, *\*ditza* > *dira*. Irugarren pertsonako adizkiak geien galtzen dabe beti geien erabiltzen diralako. Adibidez, *daiza-k -iza-* erro guztia galdu dau. Dana dala, Mitxelenak be esan eban *naiz* *\*naiza*-tik eta *aiz* *\*aiza*-tik datozela. Lafittek be, irugarren pertsonako *da* *\*daiza*-tik datorrela. Bonapartek idatzi eban Erronkariko *gitra* *gítza*-tik sortu zala gaurko *gara* baiño leenago. Lafittek be, *gítza-k* aurkitu eban Mixaineko itanoan.

Bestalde, *izan*-en gipuzkerako datibodunak probatzen dabe nolakoak ziran aitatutako adizkiak, adibidez : *na-iza-io* ‘yo soy a él’, *a-iza-ko* ‘tu eres a él’, irugarren pertsonako arrunta *-za-io* ‘él es a él’ da baiña len esandako *da-galdu* dau osorik adizki onek, au da : *da + iza* ta + *io* datiboa > *da-za-io*. I.M. Echaidek ipinten eban *da-za-io*. Orixe-k aurkitu eban *di-za-ko* Naparroan. Hualde Mayok idatzi eban *da-za-izu*. Gipuzkerako *ga-itza-izkio* ta *za-itza-izkio* ezin leitekez etorri *gara* ta *zara*-tik eta bai *ga-itza* ta *za-itza-tik*, Azkuek esan eban legez.

Euskaltzain batek idatzi eustan esanez, (aditzaren diacronía (historia) ez dabela estudiadu aitortuta gero), *naiz* eta *naiz(a)-io* “diasistema” batekoak dirala ta ezin dirala konparatu. *Naiza-io* ¿ez al dator *naiz(a)-tik* ? Eta *dator-ko dator-etik* ? ¿Zenbat “diacronía” ta “diasistema” ikasi bear dira argi ta garbi ikusteko *naiza-io* *naiz(a)-tik* eratorria dala ? Itzak eleganteak baiña zentzurik bapez.

**EUSKERAZALEAK**

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

# BBK

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilero,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**